

ITELAZPI, S.A.

Sozietatearen izena

Itelazpi, S.A.

IFK

A95282216

Izaera

Sozietate publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 2003ko urriaren 21ean emandako eskritura publiko bidez eratu zen sozietate anonimo moduan, denbora mugagabearekin eta Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakiari jarraikiz: [215/2003 DEKRETUA, irailaren 23koa, «Itelazpi, S.A» akziokako sozietate publikoa sortu eta bere partaidetzak erosteko EAEko Administrazioari baimena emateari buruzkoa.](#)

Sail-atxikipena

Ogasun eta Finantza Saila.

JESN

6190 Bestelako telekomunikazio-jarduerak.

Helburu soziala

Sozietatearen xedea hau da:

- Telekomunikazio-sistemak eta -azpiegiturak kudeatu, ezarri, ustiatu eta mantentzea, zertarako, eta irrati-telebistako garraio- eta hedapen-zerbitzuak, irrati-komunikazioko eta bideo-komunikazioko zerbitzuak, seinaleak transmititzeko eta konmutatzeko zerbitzuak eta telekomunikazioko gainerako zerbitzuak eskaintzeko.
- Espektror irradi-elektrikoko aholkularitza- eta plangintza-zerbitzuei buruzko azterlanak burutzea eta eskaintzea.
- Sozietatearen jarduera-eremuarekin zerikusia duten enpresen kapitalean parte hartzea, kasu bakoitzerako jar daitezten baldintzetan.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

Kapital soziala

22.350.300 €

